



EDIKTUA

ENEKA MAIZ ULAIAR
ETXARRI ARANAZKO ALKATEORDEAK

JAKINARAZTEN DU:

**ALDAPASOROKO UR-HORNIDURA SANEAMENDUA ETA ZOLADURA
OBRAREN EXEKUZIOA ESLEITZEA: AURREKO PROZEDURA BERTAN
BEHERA UZTEA ETA BERRI BAT ARRUNTA HASTEA**

Kontratazio mahaiak 2014ko abenduaren 22an hasi zen kontratazio prozedura bertan behera uztea proposatu zuen, balorazio irizpideak argiak ez zirelako hobekuntzei dagokienez.

Nafarroako Gobernuak adierazi zuen, araudiak ezarritako ekitaldian saneamendu eta pabimentazio lanak hasteko baimena emateko aukera zegoela

Udalbatzak honakoa erabaki zuen aho batez:

- 1.-2014ko abenduaren 22an hasitako Aldapasoro urbanizazioko kontratazio prozedura bertan behera uztea
- 2.-Parte hartu zuten enpresei jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaleko iragarki oholean oharra argitaratzea.
- 3.-Nafarroako Gobernuari saneamenduko obraren zatia aurrerago hasteko baimena eskatzea.

Etxarri Aranatzan, 2015eko maiatzaren 12an.

Alkateordea: Eneka Maiz Ulaiar

